

Osoko bilkura

Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian

2015eko maiatzaren 29an

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Arejita, Adolfo, Iker sailburua,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Azkarate, Miren,
Goenaga, Patxi,
Iñigo, Andres,
Kaltzakorta, Jabier,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana,
Uribarren, Patxi,
Zabaleta, Patxi eta
Zalbide, Mikel.

Osa, Erramun,
Mujika, Alfontso,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorriak eta ahalak: Aurelia Arkotxak ahala Jean-Baptiste *Battittu* Coyosi; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari.

Osoko bilkura Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundian bildu da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren maiatzeko Osoko batzarrari hasiera eman zaio.

1. Aurreko Osoko Batzarraren (2015-04-24) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz

Oharrik egon ez denez, bilera-agiria bere horretan onartu da.

2. Exonomastika

2.1. Kanpoko herritar-izenak sortzeko irizpideen dokumentu osatua aurkeztu eta iritziak jaso. Alfontso Mujika Exonomastika batzordearen idazkaria batzar aretora sartu eta, Euskaltzaindiak aurretik erabakia daukanaren bidetik, kanpoko leku-izenei dagozkien herritar-izenak eta izenlagun erreferentzialak osatzeko irizpideak finkatzeko txostena aurkeztu du, Exonomastika batzordeak, Donostiako Luis Villasante Euskararen Ikerlanean, 2015eko maiatzean eginiko batzarrean osatu eta onarturiko testua proposatuz. Testua, paperean idatzia, euskaltzain osoen artean banatu da.

Lehenik pertsonen jatorria eta erlazio-adjektiboak azaldu ditu, *-tar*, *-dar*, *-ar* atzizkiekin toki horietako herritarrek (*italiarrak*, *austriarrak*...) zein izenlagun erreferentzialak (*txinatar jatetxea*, *europar literatura*, *arabiar arkitektura*...) eratzen direla aipatuz. Era berean, erreferentzia hori ez dela tokira mugatzen esan du, bertako izaera, kultura, hizkuntza eta abarrera baizik (*frantziar literatura*, *erromatar galtzadak*, adibidez).

Halere, atzizki horiekin moldaturikoez gainera, euskaraz toki horietako pertsonak zein gauzak adierazteko *-ko* atzizkiarekin baliatzeko ohitura zahar eta jatorra ere badela gogorarazi du: *Valentziako laranja*, *Espainiako Konstituzioa*, *Nafarroako Gobernua*, *Asturiasko mendigunea* adibidez. Halere, *-ko* atzizkia ez da erabiltzen zerbait 'nongo' ez baina 'noren edo noren mendekoa' den adierazi nahi denean: *Polinisia Frantsesa*, *Kongo Belgikarra*, adibidez.

Horren hurrengo, jatorri-adjektibo edo herritar-izen konposatu jasoak eratzeko modua azaldu du, hor lehen elementua *-o*-rekin amaituriko erro jaso eta aldaezintzat harturik: *afro-*, *arabo-*, *austro-*, *erruso-*, *franko-*, *greko-*... horien kasuistika xeheki azaldu eta etsenplu ugari emanaz, bai eta salbuespen kasu nabarmenenak ere, kakofonia baztertzeko.

Azkenean, bokalez zein kontsonantez bukatutako leku-izenetatik eratorririko izen eta adjektiboak eskaini ditu, amaiera ezberdinen arabera, hor ere kasu salbuestiak azpimarratuz. Sailkapena egiteko, kontuan hartu ditu orain arteko praktika eta euskal herrietako ohiturak, idazkera arrotz eta bitxiko formak, ahal denean, saihestuz.

Elkarrizketa eta galderen aldian, P. Zabaletak itzultzeko era ezberdinek aldean izan dezaketen esangura-ezberdintasuna aipatu du. Hori argitzeko, *Nafarroako Gobernua* eta *nafar gobernua*, *Madriko Gobernua* eta *madrildar gobernua* moduko etsenpluak jarri ditu, bereizketa batzuk kontuan hartzekoak direlako.

M. Zalbidek A. Mujikaren lanari oso ondo iritzi dio eta horrelako zerbait kale-ratzea jendearentzat oso mesedegarria litzatekeela gaineratu du. Zenbait kasutako abusua ere azpimarratu du, hitz batzuei behar ez duten eranskinak jartzen zaizkie-lako: (euskal) baserria, Frantziar Estatuko / Frantziako, Zumaia aldeko (euskal) kosta, adibidez. Dudazko kasuetan posibilitate guztiak aukeran uztea hobe dela pentsatzen du. Era berean, bere aburuz, euskaraz maiz jatorrago eta normalagoa da toponimoei ohiko *-ko* eranstea, *-tar* baino.

A. Arejitak A. Mujika zoriondu du, kanpoko izenen kasuistika bildu eta arau-tzeko egindako ahaleginagatik. Bera ere ez dator bat *-tar* / *-dar* kalifikatu beharre-ko hitzaren aurrean beti ipini beharrearekin, hor, azken buruan, *izena + izena* lotura dagoelako, eta hitz erreferentzial horiek jarrera bietan onargarriak direlako, aurrean zein atzean.

M. Azkaratek zorionak eman dizkio A. Mujikari, eta bere txostena jendartean zabaltzea merezi duela gaineratu du, xehetasunak azpimarratuz.

A. Iñigo *-tar* atzikia erabiltzearen alde agertu da, eufonia eta kakofonia kasue-tan, eta ildo horretatik *calahorzar* baino egokiago ikusten du *calahorzar*. Era be-rean, *-ts* eta *-tz* amaieradunei, kasu guztietan, salbuespenik gabe, *-star* eta *-ztar* eranstea komeni dela aipatu da, Euskal Herriko izenekin egin ohi den bezala, hots, *Saigots* > *saigostar*, *Zarautz* > *zarautzar* gisa.

M. L. Oñederrak ere A. Mujikari zorionak eman eta oharrak idatziz egingo di-tuela iragarri du.

Gauzak horrela, ekarpenak, iruzkinak edota oharrak egiteko ekainaren 19ra ar-teko aldia ireki da.

2.2. «Goi Erdi Aroko pertsona-izenak. Izen germanikoak. Irizpideak eta per-tsona-izenen zerrenda» araugaia aurkeztu. Ondoren, A. Mujika germaniar jatorriko izenetara igaro da. Honetan ere txosten idatzi luzea ekarri du, bere argudioen indar-garri. Hasieran, era honetako izenen historia egin du, eta Erromatarren Inperioa ahul-tzen hasi eta barbaroen eraginez amildu arte gure kontinentera heldu edota Europa-ren iparraldetik hedaturiko jende berrien izenak aipatu ditu. Horietako batzuk, hain zuzen, aurreko zerrendetan Euskaltzaindiak jada bilduak izan dituela gogorarazi du: santu, errege eta pertsonaia historikoenak, eta horien kasuistika azaldu du.

Orain arte bildu gabeko izenekin era berean jokatzeko saiatu da Exonomastika batzordea, eta 66. eta 76. arauen bidetik *-o* bukaera hobetsi da germaniar izenetara-ko ere, aspaldion idazleek, eskola-liburuek eta komunikabideek onartu dutenez.

Hori dela eta, *-rik* bukaera duten izenetan *-riko* forma uztea proposatzen da: *Alariko, Euriko, Roderiko, Sigeriko, Teodoriko, Witeriko...* adibidez. Salbuetsirik gelditzen dira eskandinaviar jatorrikoak, *Erik* gisakoak adibidez, duela gutxi gureganatuak, eta *-o*-ren egokitzapena egiten duten gainerako hizkuntzetan ere (gaztelania, italiara, portugesa) salbuespen berarekin onartuak.

Amaieran *-olf, -ulf* elementua (germaniar hizkuntzetan ‘otso’ esan nahi duena (*wolf*)) daukaten izenak, jada arauturik dagoen *Adolfo*-ren kasuan bezala, *-olfo, -ulfo* utziko dira (*Ataulfo, Rodolfo, Aistulfo, Arnulfo, Etelwulfo*, adibidez).

Bukaeran *-bert* osagaia, ‘distiratsu’ esan nahi duena, daramaten izenak *-berto* gisa idatziko dira euskaraz, jada arauturiko *Alberto, Humberto, Norberto* eta *Roberto* bezala: *Adalberto, Dagoberto, Herberto, Sigiberto...* adibidez.

Amaieran *-ald* elementua, jatorriz *wald* ‘aitzindari, agintari’ edota *bald* ‘ausarta’ esan gura duena, daramaten izenak *-aldo* eta *-baldo* letraldatuko dira euskaraz. Adibidez: *Etelbaldo, Gundobaldo, Hunaldo, Teodebaldo, Teobaldo*. Tradizioz jasoriko *Amaut* eta *Tibalt* ere onartzen dira.

Amaieran *-ard* elementua, jatorriz *hard* ‘suharra’ esan nahi duena, daramaten izenak, euskaraz *-ardo* gisa emanen dira: *Leonardo* edo *Gerardo*, lehendik arauturiko *Adelardo, Bernardo, Eduardo* eta *Rikardo* izenen antzera.

Bukaeran *-mund*, ‘babesa’ esan nahi duen osagaia daramaten izenak, euskaraz *-mundo* gisa emanen dira: *Edmundo, Raimundo* (baina *Erramun*), *Segundo, Sigismundo, Turismundo, Faramundo...*

Amaieran *-frid* ‘bakea’ edo *-rad, -red, -ræd* ‘aholkua’ elementua daramaten izenak, euskaraz *-o* batekin jarriko dira: *Alfredo, Etelredo, Konrado, Rekaredo, Sigfrido, Rekaredo...*

Azkenean *-gild* ‘adorea’, elementua daramaten izenetan, euskaraz *-gildo* (gizonezkoentzat) eta *-gilda* (emakumezkoentzat) bukaerak hobetsiko dira: *Atanagildo, Hermenegildo, Leovigildo, Hermenegilda* eta abar.

Svinths (swind) ‘indarra’ osagaia daramaten izenetan, euskaraz *-vinto* gisa emanen dira gizonezkoen kasuan eta *-vinta* emakumezkoenak izanez gero (*Rezesvinto* eta *Gosvinta*).

chi-/k(h)i- elementua daramaten izenak euskaraz *txi-* grafiaz jarriko dira: *Txintila, Txildebrando, Txilderiko, Txilperiko, Txindasvinto* alegia.

Txostenaren ondoren jatorri germaniarreko pertsonaia historiko garrantzitsuenen zerrenda bat aurkeztu da, horien euskarazko, gaztelaniazko, frantsesezko, ingelesezko eta latinezko baliokideekin.

P. Goenagak aurkeztu den txostenaren izenburuaz ohar bat egin du, kakofonia baztertzeko, «germaniar jatorriko» jartzea eskatuz.

Ohar idatziak bidaltzeko azken eguna ekainaren 19a izanen da.

3. *Hiztegi Batua. Zerrenda osagarriak (izen propioetatik eratorriak eta -(t) ar osaerakoak). Aurkezturik iruzkinak aztertu eta erabaki (jarraipena)*

A. Sagarna eta M. Urkia *Euskaltzaindiaren Hiztegiaren* arduradunek aurrekoan eskuartearen erabiliriko txostenaren zortzigarren orritik aurrerakoak oinarritzat hartu eta oharrezaturiko hitzak aztertu dituzte. Lantaldeak eginiko proposamen gehienak onartu dira eta zalantza handiak izan diren kasuetan, hurrengo itzulirako uztea erabaki da (*lagrangepar*, *makiabeliko*, *nestoriotar*, *xobinismo* eta *xobinista* formak, hain zuzen ere). Horiekin batera, zientzia-unitateak aztertzean berrikusteko utzi dira *maxwell*, *miliampere* eta *pikofarad* sarrerak, eta arrazen sailerako *sanbernardo*.

Kultismo eta teknizismo batzuen *v/b* grafia dela eta, P. Zabaleta hitz tekniko arrunt guztiak *b*-rekin idaztearen alde dago. K. Mitxelenak erabilera bereziko kultismoetarako pentsatzen zuena aipatuz, X. Kintanak *v*-ren alde hitz egin du. P. Uribarrenek, ordea, *b*-ren alde, grafia errazteko. A. Sagarnak gogoratu du idazleengan *v*-ren aldeko joera ageri dela aspaldion. S. Alemanek uste du *makiabeliko b*-rekin idatzi beharko litzatekeela, jendearen erabilerarekin bat eginez. P. Zabaletak teknizismo berezietarako utziko luke *v*-a.

Andoni Sagarnak horiek bistarako hitzak ere badirela gogorarazi du. M. Zalbidek ez du uste hitz horiek banan-banan erabaki behar direnik, osotasunean baizik, hortik irizpide orokorra ateratzeko. Euskaltzainburuak ere irizpidea aurretik erabaki gabe zail dakusa lana. A. Sagarnak esan du hortik jo behar dela, orain arte onartuak eta ikusiz.

Hauek dira lantaldeak proposatu eta besterik gabe onartu direnak: *lacandar*, *lakoniko* izond., *lakonismo*, *lamaista*, *lesbiko*, *liliputar*, *mendeldar*, *mizeniko*, *napoleon*, *napolitana* iz. *Heg.*, *nartzisista*, *nartziso 2*, *neoplatondar*, *Oscar sari* eta *Pulitzer sari* (adibide gisa *sari* sarreran eta, horiek aski direlakoan, *Cesar sari* eta *Goya sari* isilduz), *pantagrueliko*, *parmeseano*, *pascal*, *peronismo*, *pertseida*, *petrarkismo*, *petrarkista*, *prerrafaelista*, *Réaumur gradu* (azpisarrera gisa *gradu* sarreran, aurretik onartutako *Celsius gradu* eta *Fahrenheit gradu* azpisarrerekin batera), *roentgen* (ZTHB Fisikan

hala onartua eta, bide batez, *röntgen* isilduz), *salazarismo*, *sibaritismo*, *sixtino* izond.: *Kapera Sixtinoa* (eta *kapera* sarreran, adibide gisa: *Sixtoren kapera*), *subkarpatiko*, *sufi*, *sufismo*, *talmudiko*, *taylorismo* iz. *Ekon.*, *transaharar*, *transkarpatiko*, *tsarismo*, *tsarista*, *turkmen*, *wagnertar* (eta isildu egin da *wagnerismo*), *wahabismo*, *wahabista* eta *zapata-tista*. Aldaketak direla-eta, lantaldeak proposatutako *Mohs-en eskala Mohs eskala* forman onartu da, *eskala* sarrerako azpisarrera gisa. Lantaldeak sartzea proposatutako bi forma isildu dira bileran: *probintziano* ‘gipuzkoarra’ adierakoa eta *sanbenito* iz. *Heg.*, adiera berria. *Freudiano* eta *kantiano* formak isildu egin dira, *-tar* osaera-koen aztergaian proposatutako *freudiar* eta *kantiar* forma erabiliagoen mesedetan.

Lantaldeak isiltzeko proposatuekin bat etorri dira euskaltzainak: *agustinismo*, *anticastrista*, *bakuninismo*, *bakuninista*, *bartolino*, *bayestar*, *bizantino* (*bizantziar* arautua aski delakoan), *carriñena*, *chaptalizazio*, *chianti*, *colbertismo*, *donatismo*, *donatista*, *eldorado*, *espartakista*, *estajanobismo*, *estajanobista*, *frisbee*, *hegelianismo*, *helvetiko* (aski da *helveziar* arautua), *herkules*, *herkulestar*, *jacobiar*, *jaimismo*, *jaimista*, *josefinismo*, *kabalismo*, *kabalista*, *kabalistiko*, *Kolon aurreko*, *konfuzianista*, *lamarckar*, *lamarckismo*, *laplacetar*, *lazarista*, *leonino*, *lerrouxismo*, *makadam*, *marshalldar 2*, *mazdeismo*, *memnita*, *mentxebismo*, *mitraismo*, *mozartiar*, *nikolaita*, *okzitanista*, *parkinsonismo*, *parnasianismo*, *parnasotar*, *pelagianismo*, *pelear*, *pierrot*, *pleiade*, *sartrear* eta *saturnismo*.

Probintziano hitza dela eta, A. Iñigok *probintziakoa* forma ere badela esan du (kutsu peioratiborik gabe), eta *probintzianoa*-k, aldiz, zentzu txarra duela. A. Arejita *probintziano*-rekin batera *probintziana* ere onartu beharko litzatekeela uste du. Oraingoz ez sartzea erabaki da.

Honenbestez, aztergaia bere horretan utzi da, hurrengo bilkuran hamazortzigarren orrialdetik aurrerakoak aztertzeko utziz.

4. XIX. Barne Jardunaldiak. Jarraipena

M. L. Oñederra batzordeburuak, Ahoskera batzordearen 2013tik honako emaitzak, bai eta 2016. urtearen bukaera arte aurreikusten direnak azaldu ditu. Ondoren, Herri Literatura batzordeburua den J. Kaltzakortak batzordeari buruzkoa aurkeztu du. Atal honekin amaitzeko, J. Lakarra *Euskal Hiztegi Historiko Etimologikoaren* zuzendariak, egitasmo honetan orain arte egin direnak eta 2016. urtearen amaierarako aurreikusten direnak aurkeztu ditu.

E. Osa idazkariordeak Euskararen Historia Soziala egitasmoaren txostena eta Euskaltzaindiaren zerbitzuei buruzko txostenak aurkeztea falta dela jakinarazi du. Horiek, hurrengo Osoko Bilkuretan aurkeztu nahi dira.

5. Esku artekoak

5.1. Euskaltzain urgazle berrien hautaketa. Euskaltzain urgazle berriak izendatzeko prozesua abian jarri du Zuzendaritzak. Horiek horrela, Osoko bilkuran erabakitakoa bete nahian, Araba ordezkatzan duten eta Araban bizi diren euskaltzain osoei proposamenak eskatu dizkie Zuzendaritzak. Guztira 14 proposamen jaso dira. Hortaz, zuzendaritzak egoki dakusa, izen proposamenean hasi aurretik, Arabako herrialdetik etor daitezkeen urgazle hautagaiak zenbat eta zein profiletakoak izan behar duten Osoko bilkuran adostea. Beraz, Zuzendaritzak euskaltzain osoen iritzia entzun nahi lituzke, hurrengo pausoa eman aurretik.

P. Uribarrenen ustez, jende gaztea beharrezkoa da Araban, batzuk adinduz baitoaz, eta Arabako ordezkartzarako, toponimian eta onomastikan ikerketan jarduteko beharrezkoak dira. Kopuruz, 8 bat beharko lirатеkeela uste du.

J. Lakarra harriturik dago esandako zifrarekin. Bere aburuz, 6-7 aski lirатеke. Bestalde, hautatzen hasi baino lehen, kandidatuak aukeratzeko irizpideak finkatu beharko lirатеkeela uste du.

M. L. Oñederrak ere bere harridura erakutsi du P. Uribarreni proposamena ondu zezan eskatu ziolako Zuzendaritzak. A. Urrutiak argitu du, aspaldian, P. Uribarrenek Zuzendaritzari idazki bat igorri ziola, Akademiaren arauen arabera, aldizka izendapenak egin behar direla gogoratuz. Orduan, eta horren ondorioz, Zuzendaritzak txosten bat egin zezan eskatu zion.

P. Goenagak, harriturik eta prozedura iluna izan dela irizita, gainontzeko euskaltzainen iritzia entzun nahi lituzke. Era berean, bere ustez, herrialdeka barik, aukera arloka egin beharko litzateke, Euskaltzaindiaren premiei begira.

A. Arejitak erantzun du, lurraldetasuna ez eze, profila, arloa eta premiak ere hartu direla kontuan. P. Uribarrenek hautagaien zerrenda guztion adostasunez osatu behar dela esan du. P. Goenaga bat dator iritzi horrekin, baina galdetu du ea adostasun hori herrialdekoen artean bilatu behar den ala guztiekin. J. Lakarrak Arabarako irizpideek guztientzat berdinak izan beharko luketela esan du.

E. Osa idazkariordeak argitu du Arautegiaren 37. artikulua bi urtez behin Euskaltzaindiak ea euskaltzain laguntzaile berririk izendatu behar ote duen jasotzen duela, hots, ez daudela euskaltzainak horretara behartuta eta, aurrekoan aurkeztu zen txostenean argi ageri zenez, aurrekoetan ere ez direla bi urtez behin urgazleak izendatu, oro har.

A. Iñigok uste du orain arte Zuzendaritzak egindako gestioa ona dela, baina, zenbat urgazle behar diren galdetu du. Bere ustez, Arabarako proposatzen den kopuruaren arabera, bat-batean guztira 34 lagun izendatzea jendearen begietarako gehiegizkoa litzateke, eta horrela urgazleen balioa bera ere eskastuko genuke. Kopurua gehitzeko denbora izango da gero ere.

A. Urrutia euskaltzainburuak azaldu du Zuzendaritza prest dagoela Araba ordezkatzan duten eta Araban bizi diren euskaltzain osoekin bilera antolatzeko, bai eta adostasuneran iristeko, eta eginiko urratsen berri emanen duela hurrengo Osoko bilkuran. Hala egingo da.

5.2. Eusko Ikaskuntza-Laboral Kutxa Saria. Zuzendaritzak X. Kintana Urtiaga euskaltzain oso eta idazkaria proposatzea egoki ikusi du.

Osoko bilkurak berretsi du eginiko proposamena.

5.3. Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa. Euskaltzaindiaren Plan Estrategikoan onartutakoari kasu eginez, Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa sortu eta behin-behineko patronatua eratu da Euskaltzaindiaren Zuzendaritzako kideekin, Bilbon, maiatzaren seian. Datozen hiletan, finantza-entitateek, bai eta herri-erakunde ezberdinek ere beren ordezkariak izendatuko dituzte eta Fundazioa jendaurrean aurkeztuko da.

5.4. Frantziako IGN-ren eta Euskaltzaindiaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Akordioa datorren astean, ekainaren bian, izenpetuko da, Bordelen. Onomastikaren eremuan gauzatuko dute lankidetzaren bi aldeek.

5.5. Hurrengo bilkura. Ekaineko Osoko bilkura Baionan egingo da, ekainaren 26an. Idazkaritzak aurrerago bidaliko ditu tokiari eta egunari buruzko xehetasunak.

6. Azken ordukoak

6.1. Politikari batzuen aldetik euskararen eta okzitanieraren kontrako jarraira Ipar Euskal Herrian. Tx. Peillen euskaltzain osoak hitza hartu eta Ipar Euskal Herrian, zenbait politikariren aldetik, euskararen eta okzitanieraren irakaskuntzaren aurka izandako adierazpen eta jarreraren berri eman du. Okzitanieraren irakaskuntzari jarririkiko oztopoen kontra azkenaldian egon diren protesten berri ere eman du.

6.2. M. L. Oñederrak intranet zerbitzua abian jartzeko eginiko proposamena. Besteak beste, Osoko bilkuretan aztertzen diren dokumentuak, bai eta onarturiko osoko bilkuretako bilera-agiriak eskura edukitzeko, intranet zerbitzua antola

dadin proposatu du M. L. Oñederrak. Euskaltzainburuak proposamena idatziz egin dezan eskatu dio, ondoren, Zuzendaritzak hori azertu eta IKT batzordera eramateko.

6.3. M. L. Oñederraren galdera Barne Jardunaldiez. M. L. Oñederrak jakin nahi luke nola programatu ziren hiru ordu bakarrik, garbi zegoenean aldez aurretik ez zela denborarik izango egitasmo eta batzorde guztiek bere lana aurkez zezaten bakoitzari hamarna minutu bakarrik emanda ere. Euskaltzainburuak erantzun dio Zuzendaritzak azkeneko urteetan berebiziko ahaleginak egin dituela euskaltzain osoak aldian-aldian informaturik egon daitezen batzorde, egitasmo eta zerbitzuen zereginenez. Hartara, Osoko bilkuran sarri aurkeztu dituzte egitasmoen arduradunek euren lanen egoera eta emaitzak. Orobat, batzordeenak eta zerbitzuenak. Bestalde ere, Barne Jardunaldiari Osoko bilkura batzuetan jarraipena ematea ohikoa izan da Euskaltzaindian, astirik ez dagoenean Osoko bilkura batean Barne Jardunaldiaren eduki osoa aztertzeke. Nolanahi ere, Osoko bilkuretan Barne Jardunaldia egitea lagungarria da Euskaltzaindiaren aurrekontua modu orekatuan aurrera eramateko, eragin ekonomiko txikiagoa duelako.

6.4. Joan Mari Torrealdai euskaltzain osoaren egoeraren berri. A. Sagarnak J. M. Torrealdai euskaltzainaren osasun egoeraz eman du informazioa. Hasierako alarma gora behera, hobera egin duela jakinarazi die euskaltzainei. Ez du minik ez sukarrrik eta, tratamenduak on egin dio, baina oraindik zenbait denboraz bakartasunean lasai pasatu beharko du. Nolanahi ere, mezu elektronikoak-eta erantzuten ditu.

Eta beste aztergairik ez dela, 14:50 direnean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria